

Duela gutxi jakin dut Piarres Larzabalen "Matalas" Pastoral, Baionako antzoki nagusian antzeztu zenean, 1968an, haxe aurpegiratu zietela:



- Ez al duzue uste plaza hau handiegia dela euskaraz antzezteko?...Frantsesez ere ez dugu betetzen-eta!

Baina jaun-andreok, zorionez, euskaraz bete egin zen plaza!

Bete-beteak zeuden plaza guztiak Elena Irureta eta Kontxu Odriozolak idatzi eta ekoiztutako komedia zoragarri hura, Mikel Garmendia eta Joxerramon Soroizekin batera, Euskal herriko ia herri denetan antzeztu zutenean: "Ama Begira ezazu", Eneko Olasagastik zuzendua. Eta "In Fraganti"-rekin egin genituen emanaldi mordoan, edota "Kutsidazu bidea Ixabel"-ekin, eta abar, eta abar. Eta "Nomofobikak" lanarekin, edota, berriz ere, trostan jarriko dugun "Zaldi Urdina"-rekin.

Ze plazera den gure hizkuntzan sortu eta ekoiztutako lanekin antzokia lepo ikustea.

Adi! Entzun! Zatozte maskaradun jaun-andre, gazte eta umeak. Zatozte denboran eta espazioan magikoa den gunera! Gozatu, flipatu, hausnartu edota amestu!

A! Eta irteterakoan jabetuko zarete, oraingoan ere, euskaraz zela.

Olatz Beobide Egaña (aktore eta zuzendaria)